


ANBULATEGIAREN INAUGURAZIOA BEREZIA



Datorren astelehenean hilak 25 irekiko ditu bere ateak ambulategi berriak. Hauetako egun batean eta gure zerbitzurako zenbait izango balitz bezala autoritateak bisitatuko digute. Hemendik izango ditugu guk lortutako ambulategia berea bezala guri eskeintzeko nahian.

Eta gainera ez da edonor etorriko, beharbada Gobernu Zentra leko Sanitateko ministroa hemen izango da. Zertara dator ministro jauna Altza bezelako auzo batetara? Agian hauteskunde kanpaina hasia da?

Auzokoek ambulategia eskatzen genuenean, Madrid guztiz urruti zegoen, baina ateak zabaltzeko unean kilometro horiek ezertan bihurtuko dira eta ministro jauna helduko da bere ponpa guztiarekin. Oso usain txarra dauka bidai honek! Joan zaitez zure etxera ministro jauna!

Ez dugu ahaztu behar hauexek direla bere negligentzia eta interes ezarekin behartu gaituztenak bai kaleetan zehar manifestatzera, bai makina bat ordu etxe ofizialetan galtzea, eta guzti hau, eskainitako proiektu eta agindutakoak bulego batetan ahaztu ta gelditzeko. Guk ixuritako izerdia bereganatu nahi dute.

Horrexegatik, guk altzatarrok ospatu behar dugu, nahi dugun gisara, gende arrarorik gabe, baina hori bai jai herrikoi baten bidez. Auzoko lorpen bat izan delako soilik.

Inaugurazioa datorren ostiralean, hau da 22an arratsaldeko 7etan izango da ambulategi bertako sarreran. Txaranga eta kriston "lunch" eskainiko dugu, guzti hau hemengo ardo on eta sendoarekin. Ez ahaztu, eta zatoz, zuk ere lagundu bait duzu ambulategi hau lortzea.

Altza eta Larratzoko Auzo Elkartek